

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Veleiako idazkunez konfiantzarik ez

HASIERAKO poz leherketaren ondoren, zalantzek gero eta indar gehiago hartu dute Arabako Veleiako aztarnategiko idazkunak direla eta. Behin betiko emaitzen zain, euskarazko idazkun horiek benetakoak ez direneko ustea zabaldu da. Azken iritzi esanguratsua Joakin Gorrotxategirena izan da. Euskaltzaindiaren Nazioarteko Biltzarrean Veleiakoa “iruzur lotsagarri eta penagarria” deneko susmoa agertu du. Gorrotxategi EHUko katedraduna da eta Arabako Foru Aldundiak osatutako aditu taldeko kidea. Hil honen bukaeran behin betiko txostena argitara eman-go omen du aditu taldeak.

Krisia aitzakia

NAFARROAKO GOBERNUAK hala esan du. Krisiak eragin diola, eta aurten euskarazko komunikabideentzako izango zen 310.00 euroko diru poltsa ondo gordeko du oraingoz. Xabier Azanza Euskarabideako zuzendari kudeatzaileak adierazi du urte bukaceran erabakiko dutela zer egin dirulaguntza izoztuekin. Hedabideetako langileek haserre adierazi dute, izan ere, haien ustez beste hainbat alorrean, esaterako, hezkuntzan eta kulturaren, ez dira halako murrizketak egin.

Txakurra gutxienez elebiduna

TONI MOLLÁ kazetariak gipuzko-aeuskara.net webgunean halakoak

esan ditu bere zakurra abiapuntu hartuta: “Frantsestua naiz, ezkontza bidez. Beraz, gure etxean egunero erabiltzen dugu Michel de Montaigneren hizkuntza. Nik ez dut frantsesari balio erantsirik bilatzen ibili beharrik, erabiltzen dudalako balio baitit. Hil zen arte, gure txakur maitea ere katalan-frantses animalia elebiduna izan zen. Sekula ez genuen gaizki-ulertze soziolinguistikorik izan berarekin. Hitz egiten genioanean, itxuraz, ondo ulertzen gintuen, gure familiaren elebitasunagatik kexurik egin gabe. Pentsatzen dut bizi izan zen hamalau urteetan gaztelania ere ulertuko zuela, Valentzian, logikoa denez, Cervantesen hizkuntza ingurumenean”.

TALAIAN

EHU: hamasei urte pankartaren atzean

Pasa den martxoan, irakasle propioak eta unibertsitate autonomia eskatzen zuten EHUko irakasle taldea kaleratu zela hamasei urte bete ziren. Orduetik, egunero-egunero, hamasei urtez dagoeneko, talde horretako batzuek pankarta bera zabaltzen dute Leioako unibertsitateko campusean.

Batzuek miretsi egiten dituzte, beste batzuek gorrotatu. Kontua da intsumisio bidezko borroka luze eta isil horren atzean aldarrikapen sakona dagoela, gutxienez errespetua merezi duen aldarrikapena.

Ezetz esan zioten ezegonkortasuna eta diskriminazioa ekarriko zien kontratu administratiboari eta ezezkoa eman zioten baita ere, gutxienerako duintasunean lan egiteko aukera bakarra den funtzionario ereduari.

Lan kontratu iraunkorra eskatzen dute. 1987an greba orokorra egin zuten horren alde. Utopikoak? Hamasei urtez pankartaren atzean egonda ere helburu nagusia lortu ez duten arren, euren borroka eragina izan du egungo unibertsitateko lan harreman sistema eraldatu duten erabaki batzuetan. Kaleratutako intsumisioek espero dute, laster, Euskal Herriko unibertsitate publikoetan funtzionarioen pareko lan baldintza eta baldintza politikoak izango dituen irakasle kontratatuak izango direla. Euren utopia egia bihurtzen ari da eta duintasuna mantentzen jarraitzen dute. Pankarta arrazoi batengatik edo bestearengatik utzi zutenek ere mantentzen dute duintasuna. Nola batzuek, hala besteek, errespetua eta mirespena merezi dute.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Pello Esnalek *Deian* esanak: “Bi uste gaizto daude gurean zabalduak; batetik, arautzen duena baino gehiago arautzen duela gramatikak eta, bestetik, nahikoa dela gramatikaren arauak betetzea testu egokiak sortzeko, bai ahoz eta bai idatziz”.

Ferran Suayk *Berrian* esanak: “Norbaitek zein hizkuntzatan egiten duen ez dakizun bitartean, euskaraz egin. Norbaitek gaztelaniaz egiten dizunean, horrek ez du esan nahi ez dakienik euskaraz, beraz, erantzun euskaraz. Orobat, hitz egin euskaraz, ez dizutela ulertu esaten dizuten arte. Hori bakarrik eginda, askoz ere gehiago entzungo da euskara”.

Mertxe Mujikak (*AEK*) *Deian* esanak: “Uste dut euskararen erabilera ez dabilela ongi, gauzak diren bezala. Euskal Herrian euskaraz hitz egiteko gai den jende guztiarekin uste dut gehiago erabili beharko litzatekeela. Pertsona bakoitzak euskara erabiltzeko konpromisoa hartzeko deia egin behar da. Bigarrenaz, guneak ahalbidetzeko konpromiso kolektiboa egon behar da”.

Tortura eta “legearen inperioa”

MIKEL JIMENEZ eta Aritz Azkona gazte iruindarrak joan den ostiralean atxilotu zituen Guardia Zibilak Auzitegi Nazionaleko atarian, beren borondatez epailearen aurrea deklaratzera zihoazenean. Atxiloketa agindua zegoen beraien aurka eta etakide gisa agertzen ari ziren poliziaren afitxetan. Orain artean aipatutakoan ez da ezer izugarri berezirik, zentzugabea dirudi epailearen aurrean deklaratu aurretik atxilotzea, baina sarri gertatu da. Bitxia ere bada ustezko bi etakidek besterik gabe beren burua entregatzea. Ohikoena izaten da etakideek ihes egitea eta beren jardun armatuan jarraitzea, hurrengo batean atxilotu arte. Harrigarriena da, eta hor da notizia, ez dituztela torturatu. Tratu deserosoa bai, baina tratu txarrik eta torturarik ez. Beste datu bat, Nafarroan abuztu bukaeratik hona atxilotutako beste guztiak ez bezala, ez zeuden inkomunikatuta eta abokatuak larunbatean ikusi ahal izan zituen. Ohikoena beharko lukeena salbuespena da hemen. Komunikabide, agintari eta alderdi politiko nagusien agendetan tortura edo ez da esistitzen edo bere lekua hutsala da. Salbu eta norbait



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

ospitalean oso egoera larrian eta tratu txarren zantzu nabarmenekin agertzen denean. ENAMeko egitura eta usaina duen ororekin gertatzen ari diren salbuespen neurri ugarietatik bortitzena eta basatiena da torturarena; EAeko Auzitegi Goreneko lehendakari Fernando Ruiz Piñeirik hain gustura azpimarratzen duen “legearen inperio” horrek babestua. Eta inperio horrek 8-10 urteko kartzela zigorra baldin badu Segiko gaztea izan edota zabor edukiontzi bat edo kutxazain bat erretzeagatik, norantz bultzatzen dute gazte hori?

IBARRETXE LEHENDAKARIARI argi adierazi zion Ruiz Piñeirik bera ere Espainiako legeen menpe dagoela. Espainiako epaileek izan

dezaketen botere itzelaren beste adibide bat da urtarri-laren 8an bistaratuko den auzi hau, oso urruti joango ez bada ere, bere helburu nagusia beteko duena, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria auziperatuen aulkian jartzea. Irudi hori latza litzateke ustelkeriaz epaitzeko balitz, baina ez, Batasuneko buruzagiekin publikoki hitz egiteagatik da. Eta berdin PSEkoak. Hemen inork gutxik ulertzen du. Ea balio duen atzerrian Espainiako inperioaren legean gertatzen direnak hobeto ulertzeko. Ez litzateke gutxi.

PP ETA UPN bakoitza bere kabuz hurrengo hauteskundeetan Nafarroan? Ez, ez da gertatuko, urak ez du gainezka egingo, moldatuko dira lehenago. Moldatuko diren moduan PSNrekin berriz botere egiturak lotzeko. UPNren nagusitasunaren porrota PSNren porrotetik bakarrik etor daiteke. Eta ez dirudi hori bihar goizean gertatuko denik. PSNren barne indarren orekak ez du halakorik adierazten. Eta boto emaileen multzo handi batean behintzat ez dirudi UPN-PSN eske-ma hori gutziz deserosoa denik. Oposizioak badu hitzate lanik.

